

## Gizarte feudalerantz



1. **Apaizak:** Kristautasunaren hedapenak izugarrizko eragina izan zuen gizartea egituratzeko moduan. Horrela, apaizek gizarteko lehen estamentua osatzen zuten, noble eta nekazarien aurretik.
2. **Noblezia:** Jauntxoek ("*seniores*") edo nobleek osatutako taldeak askatasun osoa eta botere handia zituen. Lur gehienak haienak ziren, eta lurron errentak eskuratzen zituzten. Ez zen, halere, talde homogeneoa.
3. **Burgesia:** XII. mende erdialdetik aurrera, hiribilduetako biztanleak, hau da, klase burgesak eta biztanle hiritarrak, nekazaritzan oinarritutako gizarte feudalizatu hartan nagusituz joan ziren, eta talde berri horiek agertzearekin batera, iraultza handia gertatu zen gizartean.
4. **Nekazariak:** Nekazariak osatzen zuten talderik handiena, baina haiena ere ez zen talde homogeneoa. Nekazarien egoera aldatu egiten zen lurraren gain zuten jabetzaren eta haien askatasun pertsonalaren arabera.
5. **Talde txiki baztertuak:** Zenbait hiribildutan juduak eta musulmanak bizi ziren. Era berean, kristau erlijioakoak ez ziren biztanle baztertuez gain, gaizkileak, bidelapurrak, legendunak, emagalduek, etab. ere bazeuden, eta haiek ere orduko gizarte sarea osatzen laguntzen zuten.